

Legalización de documentos extranjeros Atzerriko agiriak legeztatzea

La legalización es el procedimiento de validación de las firmas de las autoridades que suscriben un documento mediante el cual se acredita la autenticidad de las mismas, con el objeto de su presentación en un tercer país.

En el supuesto de títulos o certificaciones académicas, la legalización consiste, con carácter general, en el reconocimiento de la firma de la autoridad educativa que expide el documento original (no de aquella que avale su compulsión o traducción).

No se exige ningún tipo de legalización para los documentos expedidos en los Estados miembros de la Unión Europea o pertenecientes al Espacio Europeo de Educación Superior. (<http://www.eees.es>)

En los demás casos, los documentos expedidos en el extranjero que quieran hacerse valer en estos procedimientos deberán estar debidamente legalizados con arreglo a las siguientes condiciones:

- **ser oficiales y estar expedidos por las autoridades competentes** para ello, de acuerdo con el ordenamiento jurídico del país de que se trate
- **acompañarse de la traducción oficial a la lengua española**, si estuvieran expedidos en cualquier otro idioma, lo que podrá hacerse:
 - por traductor jurado debidamente autorizado o inscrito en España
 - por cualquier representación diplomática o consular de España en el extranjero,
 - por la representación diplomática o consular en España del país de que es ciudadano el solicitante o, en su caso, del de procedencia del documento, o
 - Por un traductor oficial en el extranjero y debidamente legalizada la firma de dicho traductor oficial.

Quando el documento original esté escrito en un alfabeto distinto del occidental, se recomienda que la correspondiente traducción recoja la denominación del título en su idioma original, pero transcrita al alfabeto occidental, en lugar de una traducción de esa denominación.

Procedimientos de legalización:

Salvo que exista Convenio, Tratado o Acuerdo internacional que exima de su legalización, ésta se hará conforme a uno de los dos procedimientos siguientes:

- **Apostilla de La Haya.** Para documentos expedidos en países que han suscrito el Convenio de La Haya, de 5 de octubre de 1961.
Es suficiente con la legalización única o "apostilla" extendida por las autoridades competentes del país. La Apostilla suprime el requisito de legalización diplomática y consular de los documentos públicos que se originen en un país del Convenio y que se pretenden utilizar en otro.

Legeztatzea agiri bat sinatzen duten agintarien sinadurak baliozkotzeko prozesua da. Prozesu horrek ziurtatzen du sinadurak egiazkoak direla, beste herrialde batean aurkeztu ahal izateko.

Ikasketa titulu edo ziurtagiriei dagokienez, legeztatzeak esan nahi du, oro har, jatorrizko agiria egin duen hezkuntza arloko agintariaren (ez agiria konpultsatu edo itzuli izana ziurtatzen duenaren) sinadura aitortzea.

Ez dira legeztatu behar Europar Batasuneko estatu kideek edo Europako Unibertsitate Eremua osatzen duten estatu kideek (<http://www.eees.es>) egindako agiriak.

Gainerakoetan, prozedura horien bidez baliozkotu nahi diren atzerriko agiriak legeztatuta egon behar dute eta ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- **agiriek ofizialak izan behar dute, agintari eskudunek eginak**, herrialde horretako ordenamendu juridikoaren arabera.
- **Espainiararako itzulpen ofiziala erantsi behar zaie**, jatorriz beste hizkuntza batean egin badira. Itzulpen ofiziala egin ahal izango dute:
 - Espainian horretarako baimena duten edo erregistroan izena emana duten zinpeko itzultzaileak.
 - Espainiak atzerrian duen edozein ordezkaritza diplomatiko edo kontsularrek.
 - Eskatzailearen jatorrizko herrialdeak edo jatorrizko agiria egin duen herrialdeak Espainian duen ordezkaritza diplomatikoak edo kontsularrak.
 - Atzerriko itzultzaile ofizial batek, haren sinadura legeztatuta.

Jatorrizko agiria mendebalekoaz bestelako alfabetoren batean idatzita badago, gomendatzen da itzulpenak tituluak jatorrizko hizkuntzan duen izena jasotzea, baina mendebaldeko alfabetoan, izen horren itzulpena eman beharrean.

Legeztatzeko prozedurak:

Legeztatetik salbuesten duen nazioarteko Hitzarmen, Itun edo Akordiorik egon ezean, legeztatzea honako bi prozedura hauen arabera egingo da:

- **Hagako azken oharra.** Hagako hitzarmena, 1961eko urriaren 5ekoa, sinatu duten herrialdeek egindako agiritan.
Nahikoa da legeztatze edo "azken ohar" bakarra, herrialdeko agintari eskudunek idatzia. Azken ohar hori idatzita, ez da behar Hitzarmena sinatu duen herrialde batek egin eta beste batean erabili nahi diren agiri publikoak ordezkaritza diplomatikoak eta kontsularrak legeztatzea.
Hagako Hitzarmena sinatu duten herrialdeak: www.hcch.net
- **Legeztatze diplomatikoa.** Hagako Hitzarmena sinatu ez duten herrialdeek egindako agiri publikoetarako. Hauxe da prozedura orokorra:

Países que han suscrito el Convenio de la Haya:
www.hcch.net

- **Legalización diplomática.** Para documentos públicos extranjeros expedidos en países no firmantes del Convenio de La Haya. El procedimiento generalmente establecido es el siguiente:
 - 1º Ministerio de Educación del país de origen para títulos y certificados de estudios; y en el Ministerio correspondiente para certificados de nacimiento y nacionalidad.
 - 2º Ministerio de Asuntos Exteriores del país donde se expedieron dichos documentos.
 - 3º Representación diplomática o consular de España en dicho país.

1. Jatorrizko herrialdeko Hezkuntza Ministerioa, ikasketa titulu eta ziurtagirietarako; eta dagokion Ministerioa, jaiotza ziurtagirirako eta nazionalitaterako.
2. Agiri horiek egin zituen herrialdeko Kanpo Gaietako Ministerioa.
3. Espainiak herrialde hartan duen ordezkaritza diplomatikoa edo kontsularra.

Informazio gehiago Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioan: www.mecd.gob.es

Más información en el Ministerio de Educación, Cultura y Deporte: www.mecd.gob.es